

<p>2021EKO ABENDUAREN 23AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.</p> <p>=====</p> <p><u>BERTARATUAK</u></p> <p><u>ALKATEA</u></p>	<p>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 23 DE DICIEMBRE DE 2021.</p> <p>=====</p> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>ALCALDESA</u></p>
---	--

Amaia Aguirre Muñoa and.

<p><u>ALKATEORDEAK</u></p>	<p><u>VICEALCALDESAS</u> Y <u>VICEALCALDE</u></p>
----------------------------	---

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

<p><u>ZINEGOTZIAK</u></p>	<p><u>CONCEJALES</u></p>
---------------------------	--------------------------

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Guijarrubia Garzia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Mikel Bildosola Agirregomezkorta (EH BILDU)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Carolina Uribe de la Espriella (E. PODEMOS)

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenpefik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltaren web-orrialdeitik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalaren, ezkerrealdean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz.

GE/T/LCP/2022/1320 nYEeZCnUPC

IDAZKARI NAGUSIA

SECRETARIO GENERAL

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzia eta erdietan, Udalaren Osoko Bilkura bilduda, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

Jakinarazten da Paula Amieva Clemente korporatiboak, amatasunagatik atsedendian, botoa Carolina Uribe de la Espriella korporatiboaren esku utzi duela.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

EBAZPEN ATALA

191.- GETXOKO UDALBALTZAK 2021EKO AZAROAREN 25EAN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2021eko azaroaren 25ean egindako ohiko bilkuraren akta onartzeko proposamena.

ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

192.- GETXOKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN DIRU-LAGUNTZEN ONDENANTZA

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Se hace constar que la corporativa Paula Amieva Clemente, en periodo de descanso por maternidad, ha delegado el voto en la corporativa Carolina Uribe de la Espriella.

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

PARTE RESOLUTIVA

191.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 25 DE NOVIEMBRE DE 2021.

Propuesta de aprobación del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 25 de noviembre de 2021.

ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

192.- APROBACIÓN INICIAL DE LA ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS

OROKORRA ONARTZEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabakia da:

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Getxoko udalaren eta haren erakunde autonomoen diru-laguntzen ordenantza orokorrari, eranskin gisa bidali den dokumentuan (Ordenantza proiektua) jasotako terminoetan.

Bigarrena.- Informazio publikoko eta entzunaldiko izapidea irekitzea interesdunentzat, gutxienez 30 eguneko epean erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, BAOko dagokion iragarkiaren bitartez. Horrelakorik aurkeztuko balitz, Udalbatzak alegazioak eta iradokizunak ebaztea eta, hala badagokio, behin betiko onartzea. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko erabakia behin betiko hartu dela joko da.

Hasieran onartutako testua udalaren webgunean ikusi izango ahal da.

Behin betiko onartutako testua BAO n aurkeztutako da.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Keltse Eiguren
Carolina Uribe
Gonzalo Ayo
Mikel Bildosola
Eduardo Andrade
Ignacio Uriarte

ZUZENKETEN BOZKETA/VOTACIÓN ENMIENDAS

HASIERAN ORGANISMOS AUTÓNOMOS.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Primero.- Aprobar inicialmente la Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos, en los términos del documento que se adjunta como anexo (Proyecto de Ordenanza).

Segundo.- Proceder a la apertura de un trámite de información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de 30 días para la presentación de reclamaciones y sugerencias mediante el correspondiente anuncio en el BOB y en el supuesto de presentarse proceder a la resolución de las alegaciones y sugerencias por el Pleno y en su caso a su aprobación definitiva. En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente aprobado el acuerdo hasta entonces provisional.

El texto inicialmente aprobado podrá ser consultado en la página web del Ayuntamiento.

El texto definitivamente aprobado será objeto de publicación en el BOB.

ERREGISTRO ZKIA.	PROPOSAMEN TALDEA GRUPO PROPONENTE	BAI SI	EZ NO	ABSTENZIOA ABSTENCIÓN
42896-1	E Podemos	11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	
42896-2	E Podemos	2 (Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	9 (PP, EH Bildu)
42896-3	E Podemos	11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	
42896-4	E Podemos	11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	
42926-5	E Podemos	7 (PP, Elkarrekin Podemos)	18 (PNV, EH Bildu, PSE-EE)	
42926-6	E Podemos	7 (PP, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	4 (EH Bildu)
42926-7	E Podemos	6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	5 (PP)
42926-8	E Podemos	6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	5 (PP)
42927-9	E Podemos	11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	-
42927-10	E Podemos	11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	
42927-11	E Podemos	7 (PP, Elkarrekin Podemos)	18 (PNV, EH Bildu, PSE-EE)	
42925	EH Bildu	6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)	14 (PNV, PSE-EE)	5 (PP)

PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN DE LA PROPUESTA

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)

EZ/NO: 11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

193.- SIFU EUSKADI-BROCOLI GETXO ANTZOKIA ABEE-ARI FAKTURAK ORDAINTZEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabakia da:

193.- ABONO DE FACTURAS A LA UTE SIFU EUSKADI-BROCOLI GETXO ANTZOKIA.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenpefik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltzaian web-orrialdeirik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalaren, ezkerrealdean ageri denegiazpapek-kode segurua erabiliz.

GE/T/LCP/2022/1320 nYEeZCnUPC

Egintza baliogabetzat jotzen duten ordenamendu juridikoko arau-haustek edo ordenamenduak debekatutako hitzeko kontratazioaren kasua detektatu direnez, bidezkoa da:

Prozesu-ekonomiagatik, prozedurarekin jarraitzea eta dagokion kalte-ordaina finkatzea, 2021/001851, 2021/001849, 2021/002319, 2021/003629 eta 2021/003630 zenbakidun fakturen zenbatekoaren baturan, espedienteko prestazioen balorazioari buruzko informazioaren arabera, eta horrek ABEE-SIFU EUSKADI - BROCOLI GETXO ANTZOKIA (IFZ: U67370452) ABEEari eragindako betebeharra onartzea, 48.276,42 eurokoa (% 21 BEZ barne).

Habiéndose detectado infracciones del ordenamiento jurídico que califican el acto como nulo, o supuesto de contratación verbal prohibida por el ordenamiento procede:

Por economía procesal, continuar el procedimiento y fijar la indemnización correspondiente en la suma del importe de las facturas nº 2021/001851, 2021/001849, 2021/002319, 2021/003629 y 2021/003630 de acuerdo con la información sobre la valoración de las prestaciones que consta en el expediente, así como reconocer la obligación derivada de la misma en favor de UTE SIFU EUSKADI - BROCOLI GETXO ANTZOKIA (NIF U67370452) por un importe total de 48.276,42 euros (21% IVA incluido).

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte
Ibon Rodríguez
Eduardo Andrade

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)

EZ/NO: 5 (PP)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

LURRALDEA

194.- HASIERA BATEAN ONESTEA ERANDIOKO UREDERRAKO GUARDA ETXEA IZENENKOKO JABARI PUBLIKOKO ONDASUNAREN-ZERBITZU PUBLIKOAREN - DESAFEKTAZIOA, GETXOKO UDALBATZAREN 15 ZENBAKIKO ONDASUNEN INBENTARIOAN JASOTA DAGOENA, HAREN IZAERA JURIDIKOA JABARI PUBLIKOTIK ONDARERA ALDATUZ.

TERRITORIO

194.- APROBACIÓN DE LA DESAFECTACIÓN DEL BIEN DOMINIO PÚBLICO-SERVICIO PÚBLICO DENOMINADO CASA DEL GUARDA DE UREDERRA, SITO EL MUNICIPIO DE ERANDIO, QUE CONSTA EN EL INVENTARIO DE BIENES DE LA CORPORACIÓN DE GETXO CON EL N° 15, TRANSFORMANDO SU NATURALEZA JURÍDICA DE DOMINIO PÚBLICO A PATRIMONIAL.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabakia da:

LEHENENGOA.- Erandioko UREDERRAKO GUARDA ETXEA izeneko jabari publikoko ondasunaren - Zerbitzu publikoaren - Desafektazioa onestea, Getxoko Udalbatzaren 15 zenbakiko Ondasunen Inbentarioan jasota dagoena, haren izaera juridikoa jabari publikotik ondarrera aldatuz.

BIGARRENA.- Getxoko Udalbatzak 15 zenbakiarekin duen Ondasunen Inbentarioaren barruan, UREDERRAKO GUARDAREN ETXEA (Erandio) izeneko ondare-ondasuna formalki jasotzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hau ONDASUN ETA ESKUBIDEEN UDAL INBENTARIOAN islatzea.

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar la desafectación del bien dominio público -servicio público denominado CASA DEL GUARDA DE UREDERRA sito el municipio de Erandio que consta en el Inventario de Bienes de la Corporación de Getxo con el nº 15, transformando su naturaleza jurídica de dominio público a patrimonial.

SEGUNDO.- Recepcionar formalmente dentro del Inventario de Bienes de la Corporación de Getxo con el nº 15, el bien patrimonial denominado CASA DEL GUARDA DE UREDERRA sito el municipio de Erandio.

TERCERO.-Reflejar en el INVENTARIO MUNICIPAL DE BIENES Y DERECHOS el presente acuerdo.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Alvaro González

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 21 (PNV, PP, PSE-EE, Elkarrekin Podemos)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 4 (EH Bildu)

195.- UDALAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN 2020KO ABENDUAREN 31KO INBENTARIOAREN ZUZENKETA ONESTEA.

195.- APROBACIÓN DE LA RECTIFICACIÓN DEL INVENTARIO MUNICIPAL DE BIENES Y DERECHOS A FECHA 31 DE DICIEMBRE DE 2020.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabakia da:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalaren 2020ko abenduaren 31ko udal-inbentarioa onestea, erantsitako CDan azaltzen diren baldintzetan. Hona

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar Inventario Municipal del Ayuntamiento de Getxo a fecha 31 de diciembre de 2020 en los términos expresados en el CD anexo y

hemen inbentarioaren laburpen- cuyo cuadro resumen es el siguiente:
koadroa:

EPIGRAFEA / EPÍGRAFE		ONDASUN EN KOPURUA / NÚMERO DE BIENES	BALIOA / VALOR
1º	Higiezinak / Inmuebles(*)	412	260.079.903,29
	Azpiegitura publikoak / Infraestructuras Públicas(*)	2.182	84.635.238,49
2º	Eskubide errealak / Derechos Reales	39	80.268,08
3º	Altzari historikoak - artistikoak / Muebles histórico - artísticos	78	2.099.995,80
4º	Balio higigarriak / Valores mobiliarios	3	670.868,22
	Kredituak eta Eskubideak / Créditos y Derechos	237	5.599.483,40
5º	Ibilgailuak / Vehículos	58	1.140.645,43
6º	Aziendak / Semovientes	2022	0,00
7º	Altzariak eta tresnak / Mobiliario y enseres	11.803	3.590.369,34
8º	Horma-hilobiak / Nichos	5.739	0,00
	Eskubide errebertigarriak / Derechos revertibles(*)	828	0,00
TOTAL		23.401	357.896.772,05

- * **Udalaren lurzoru-ondarearen barruan dauden ondasunak sartu dira**
- * **Incluye los bienes de PMS**
- ** **Eguneratu gabeko balioak**
- ** **Valores no actualizados**

BIGARRENA.- Estatuko administrazioei eta Bizkaiko Foru Aldundiari erabaki honen eta onetsi den inbentarioaren berri ematea.

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo así como del Inventario que se aprueba a la Administraciones del Estado y a la Diputación Foral de Bizkaia.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-udalburutzari ahalmena ematea erabaki hau betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Alvaro González

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

UDAL ORGANOEEN KONTROLA

ALKATEZA

196.- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZ BOZERAMAILEEN BATZORDEAK 2021EKO ABENDUAREN 1EAN HARTUKO DUEN ERABAKIAREN BERRI EMATEA.

Alkatetzak proposatuta, osoko bilkurak honako adierazpen instituzional hau jakitun berri izan zuen, 2021eko abenduaren 1eko Bozeramaileen Batzordera bertaratutakoek aho batez hartutakoa:

2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA.

Euskara lanabes, aro berrirantz

Erabilera-eremu berri eta ez formaletan ere, euskarak arnas berri

Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itxaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

ALCALDÍA

196.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO A ADOPTAR POR LA JUNTA DE PORTAVOCES DE FECHA 1 DE DICIEMBRE DE 2021, SOBRE EL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA.

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por unanimidad de los asistentes a la Junta de Portavoces de 1 de diciembre de 2021:

DECLARACIÓN DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA 2021

El euskera, herramienta para el nuevo tiempo

El euskera, aliento fresco también en los nuevos ámbitos informales de uso

Con cautela, pero estamos saliendo a la luz desde las más negras tinieblas. Estamos recuperando aquello que hace no solo atractiva, sino también sostenible la vida individual y de la sociedad y pueblo que juntos y juntas conformamos: las relaciones presenciales; los hábitos, ocasiones y espacios de reunión; la inclinación a encontrarnos con quienes nos completan. Y, entretanto, fortalecemos de nuevo los canales y redes de la imprescindible actividad económica, en la esperanza de regresar a donde nos hallábamos antes de la pandemia y, si fuera posible, a un lugar mejor.

Y nos guía una firme resolución: nada esencial debe quedar atrás.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaurgarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eransten dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion toki hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunon komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologien sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozeano erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko

Tampoco al euskera. De ninguna manera.

El euskera ha afrontado con nosotros y nosotras la pandemia, y con nosotros y nosotras debe salir triunfante de ella. En efecto, en el nuevo tiempo, tras la grave experiencia que nos ha hecho conscientes de la vulnerabilidad de nuestra sociedad y de la nuestra propia, están surgiendo nuevas formas, hábitos y vías de relación y comunicación, y surgirán otras aún más novedosas y sorprendentes.

La pandemia ha traído al primer plano algo que ya sabíamos: hasta qué punto son imprescindibles los canales y redes de comunicación, hasta que punto añaden valor a cualquiera de nuestras acciones; ahora, además de saberlo, sentimos también esa realidad: hemos interiorizado de manera muy profunda el carácter primordial de la comunicación, de las relaciones. Y ello constituye una de las características principales del nuevo tiempo. Y encierra un reto para el euskera: ocupar, con plena naturalidad, el espacio que le corresponde en los nuevos ámbitos y actividades comunicativas. Con eficacia. Con tenacidad.

El euskera, merced a la actitud proactiva de la comunidad vascohablante, está afrontando el gran reto que las TIC plantean a la extensión y fortalecimiento de las lenguas minorizadas en las redes de las tecnologías de la comunicación y la información. Tiene su espacio. Resulta útil. Y es verdaderamente difícil lograr algo semejante en un inmenso océano de lenguas.

Es modélico el trabajo que la comunidad vascohablante ha desarrollado y sigue desarrollando en ese ámbito, entre otras razones porque

presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikook eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetzaren publiko-privatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak ez gaituela beldurtu behar. Gai garela argiro erakusten ari garela, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean, osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzapean errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak emanez, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formalekin landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formalekin lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearen esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari ukatu gorputz eta espirituaren atseden eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarriz eta eredugarritasuna erakutsiz.

una presencia estrechamente vinculada al uso aporta verdadero valor añadido al euskera. Y resulta ya evidente que, si trabajamos de la mano de la iniciativa y colaboración público-privada, desde el imprescindible amparo y liderazgo que las instituciones públicas debemos ofrecer, no debe arredrarnos la envergadura del reto. Porque venimos demostrando con nitidez que somos capaces, por ejemplo en la esfera de la educación, en el ámbito socioeconómico, en el de los medios de comunicación, de la sanidad, de la administración y en tantos y tantos otros, que es necesario dar pasos valientes en el ejercicio real de los derechos de las personas vascoparlantes y que lo estamos haciendo.

Y es, por supuesto, preciso seguir avanzando en todos ellos, avanzando con pasos más sólidos, con perseverancia, con arreglo a criterios de innovación permanente y desde el compromiso de todas y todos. Pero en los albores del nuevo tiempo pospandemia se nos exige incorporar una nueva perspectiva: junto al uso formal de la lengua, es preciso trabajar, con la prioridad necesaria, sobre el uso en los ámbitos informales. La persona vascohablante debe ejercitar con plena naturalidad su opción de vivir en euskera cuando, en sus relaciones cotidianas, transite desde el ámbito formal a la actividad laboral, de ocio, cultural o deportiva, porque eso es lo que da sentido, en buena medida, al hecho de vivir en euskera. Porque no podemos negarle al euskera esos ámbitos íntimamente vinculados al esparcimiento y disfrute del cuerpo y del espíritu. Y para avanzar en ello, será imprescindible, además del compromiso de las personas hablantes, el esfuerzo que debemos realizar las instituciones, asignando los medios necesarios y mostrando una actitud

modélica.

Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldaketari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak...). Nekez bilatuko genuke esparru egokiagorik gazteengana iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoak aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna.

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta. Abia gaitezen.

En el reto de ganar esos ámbitos informales para el euskera, además de los ámbitos formales, está en juego, en gran medida, su vitalidad. En efecto, llevar a cabo un salto en ese terreno transformaría de raíz y de forma harto positiva la vivencia del euskera en una gran parte de las personas hablantes, muy especialmente entre las y los jóvenes.

Los ámbitos del ocio y el deporte presentan, por otra parte, valiosas características en lo relativo a la transformación de los hábitos de uso lingüístico, y en ellos se registra una acusada tendencia a muy diversos tipos de estructuración (clubes, federaciones, asociaciones, equipos...). Difícilmente podríamos hallar un territorio más adecuado para llegar a la juventud, a fin de imprimir un fuerte impulso al uso informal del euskera, activando el deseo de dar un paso eficaz hacia el euskera entre las personas jóvenes y no tan jóvenes que en tales ámbitos participan. He ahí, en consecuencia, la tarea.

Se nos brinda una oportunidad única para hacer del euskera, además de compañero de viaje, una herramienta eficaz para las nuevas relaciones y ámbitos de uso que estamos recuperando y crearemos en el umbral de la nueva normalidad. Está en nuestras manos.

El euskera está preparado; nuestra sociedad, deseosa de ello; nuestro pueblo, decidido. Emprendamos la marcha.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Nerea Guijarrubia
Fco. Javier Elorza

ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

197.- KREDITU TRANSFERENTZIEI BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUA ALDATZEKO HAINBAT EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Kreditu transferentzien erabileraren bidezko aurrekontu-aldaketari buruzko Zinegotzi Eskurdearen Ebazpen hauen jakitun egon:

5242/2021 zenbakidun Ebazpena 3.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/24 kreditu-transferentzia. Aulkiak erostea.

5294/2021 zenbakidun Ebazpena 8.800,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/25 kreditu-transferentzia. Zinemometro radarra erostea bide publikoan instalatutako kabinetan instalatzeko.

5507/2021 zenbakidun Ebazpena 17.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/26 kreditu-transferentzia. Osoko bilkuren aretoko megafoniaekipoa berritzea.

198.- 5241/2021 ZENBAKIDUN EBAZPENEN BERRI EMATEA, KREDITU GAITZEEN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTU- ALDAKETARI DAGOKIONA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Kreditu-gaikuntzaren erabileraren bidezko aurrekontu-aldaketari buruzko Zinegotzi Eskurdearen Ebazpen hauen jakitun egon:

ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

197.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSAS RESOLUCIONES DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Quedaron enterados de las siguientes Resoluciones de Concejal Delegado de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias de crédito:

Resolución nº 5242/2021 por un importe de 3.000,00 euros. Transferencia de crédito 2021/24. Adquisición de sillas.

Resolución nº 5294/2021 por un importe de 8.800,00 euros. Transferencia de crédito 2021/25. Adquisición de cinemómetro radar para instalar en diferentes cabinas instaladas en vía pública.

Resolución nº 5507/2021 por un importe de 17.000,00 euros. Transferencia de crédito 2021/26. Renovación del equipo de megafonía del salón de plenos.

198.- DACIÓN DE CUENTA DE LA RESOLUCIÓN Nº 5241/2021 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Quedaron enterados de las siguientes resoluciones de Concejal Delegado de modificaciones presupuestarias mediante el uso de habilitación de crédito:

5241/2021 zenbakidun Ebazpena
229.548,67 euroko zenbatekoarekin.
2021/10F kreditua gaitzea.
Kontratatzeko laguntzak. Lanbide 2021-
2022.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

199.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ZAINDEGI ETA EROSKETAK ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA.

Gehiengoz, honako mozio hau atzera
bota da:

Imajinatu egun batean, herritik
erosketak egiten ari garela, denda
batean erosi eta erosketaren denda bertan
uzten dugula. Ondoren, hurrengo
dendara joan gaitezke, inolako zama
eta poltsarik gabe eta beste zerbait
erosi, eta berriro ere, bertan laga.
Pasako da gero pertsona bat gure
erosketen bila leku zehatz batean batu
eta gordetzeko. Kontsigna edo zaindegi
deitu diezaiokegu toki horri. Gero, gure
ibilaldiaren ostean, agian tabernaren
batean zerbait hartu ostean zaindegira
hurbildu gaitezke gure erosketaren guztiak
jasotzeko, edo nahiago badugu etxera
eramateko eskatu dezakegu.

Pentsatzen dugu horrelako zerbitzu bat
lagungarria izan daitekeela tokiko
merkatariarentzat. Beste batzuetan esan
dugun bezala, tokiko merkatariek ez
dute baldintza berdinetan lehiatzen
Internet bidezko merkataria edota
merkatal-gune erraldoietan.
Lehenengok erraztasun izugarriak
dauzkate zerga gutxiago ordaintzeko,
lan baldintza prekarioak ezartzen
dituzte globalizazio sakratuaren
izenean eta euren kostuak gutxitzen
dituzte.

Resolución nº 5241/2021 por un
importe de 229.548,67 euros.
Habilitación de crédito 2021/10F.
Ayudas a la contratación. Lanbide 2021-
2022.

MOCIONES E INTERPELACIONES

199.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ SERVICIO DE CONSIGNA Y REPARTO DE COMPRAS A DOMICILIO.

Por mayoría se rechaza la siguiente
moción:

Imaginemos que un día estamos de
compras en el pueblo, compramos algo
en una tienda y lo dejamos allí.
Después, podemos ir a otra tienda sin
cargar pesos ni bolsas, comprar otra
cosa, y, como antes, dejar la compra en
la tienda. Más tarde una persona
recogerá nuestras compras y las
guardará en un lugar determinado.
Llamaremos a ese lugar consigna.
Luego, una vez hayamos terminado
nuestro recorrido y, tal vez, después de
haber tomado algo en un bar, podemos
acercarnos a la consigna para recoger
nuestras compras o, si lo preferimos,
podemos pedir que nos las lleven a
casa.

Creemos que este servicio puede
resultar beneficioso para los
comerciantes locales. Como hemos
manifestado en otras ocasiones, los
comerciantes locales no compiten en las
mismas condiciones en las que
compiten los comerciantes de Internet y
los grandes centros comerciales. A los
de Internet les resulta muy fácil pagar
menos impuestos, imponen condiciones
de trabajo precarias en nombre de la
sagrada globalización, y así reducen sus
costes.

Merkatal-gune handiek aldiz, orain presioaren eraginez zailagoa daukaten arren, erakundeen babes osoa izan dute: lurra prestatzen, laguntza ekonomikoekin, babes komunikatiboarekin eta abar. Oraindik ere, hemen gure ondoan dagoen merkatal-gune pribatu batek izugarritzko laguntza du Bizkaiko Foru Aldunditik, autobus lerro publiko bat beratarra bait doa. Ez, Berangoko merkatal-gunea edo Artea ez daude Getxon, baina izugarritzko eragina dute gurean.

Laguntza guzti horien aurrean, zergatik ez pentsatu nola lagun diezaiekegu? Gure ustez, zerbitzu osagarriak ondo etorriko dakieke. Kasu honetan, planteatzen duguna da erosketak jaso, batu eta zaindegian uzteko. eta baita etxera eramateko zerbitzua ere. Zerbitzu horri buruz honelako ezaugarriak pentsatu ditugu:

- Hirugarren sektoreko enprekin garatu daiteke eta lana topatzeko zailtasunak daukaten pertsonen irtenbide berri bat eman.
- Garraioa, beti egingo da era ekologiko batean, izan txirrindulaz edo txirrindula bereziki, edo behar izanez gero ibilgailuekin.
- Zaindegiak ezarriko dira parkinetan (parkinak erabiltzeko arrazoi berria izan daiteke) edota metro geltokien ondoan edota hutsik dagoen denda batean.
- Zerbitzuaren finantzazioa mistoa izan daiteke: udala, merkatariek eta erabiltzaileak.
- Zerbitzuak doako oinarrizko zerbitzu bat eskaini dezake, adibidea: erosketak dendetatik jaso eta zaindegian batu eta prestatu, eta beste bat ordaintzekoa: etxera eramatearena.
- Herritarrek zein merkatariek zerbitzua ordaindu dezakete edo

Por otra parte, los grandes centros comerciales, aunque hoy en día debido a la presión les resulta más difícil, gozan del apoyo total de las instituciones: acondicionamiento de los terrenos, ayudas económicas, apoyo comunicativo, etc. Por ejemplo, un gran centro comercial privado que tenemos aquí mismo recibe una gran ayuda de la Diputación Foral de Bizkaia, puesto que una línea de autobús público para allí. No, ni el centro comercial de Berango ni Artea están en Getxo, pero tienen un gran impacto en nuestra localidad.

Ante todas esas ayudas, ¿por qué no intentamos encontrar una manera de ayudarles? En nuestra opinión, este servicio complementario les vendría muy bien. Planteamos un servicio que consiste en recoger las compras y depositarlas en una consigna, y, además, llevarlas a casa. Hemos considerado que pudiera tener las siguientes características:

- Podría desarrollarse con empresas del sector terciario y dar oportunidades a personas con dificultades para encontrar empleo.
- El transporte se llevaría a cabo de manera ecológica, mediante bicicletas o bicicletas especiales, y, cuando fuera necesario, con vehículos.
- Las consignas se situarían en los aparcamientos (podría ser un motivo para utilizarlos) o en las cercanías de las paradas del Metro o en tiendas vacías.
- La financiación del servicio podría ser mixta: Ayuntamiento, comerciantes y usuarios.
- Una parte del servicio podría ser gratis, recoger las compras en las tiendas y depositarlas en las consignas, por ejemplo, y otra de pago, entregar las compras en el domicilio.
- Los ciudadanos y los comerciantes podrían pagar por cada

bazkidetze sistemaren bitartez.

- Zerbitzuak izaera propioa izango du, izena eta irudia.

Zalantzarik gabe horrelako proiektua gauzatzeko merkatariekin elkarlanean egin behar da. Eta ezin ditugu ahaztu egun badaudela erosketak etxera eramaten dituzten merkatarik batzuk, edo supermerkatuak, edota janaria etxera eramaten dituztenak, edota Pata Palo bezalako enpresak. Horiengan asko ikasi dezakegu eta horiek laguntzaile izugarriak izan daitezke.

Guzti hauek gure hausnarketak dira noski, hasierako hausnarketak. Argi dago honek proiektu sendoa behar duela, landua. Eta proiektua gauzatzeko bide horretan azalduko dira ideia berriak eta baztertuko dira beste batzuk. Hausnarketa hauen ostean, zera da osoko bilkura honi adosteko proposatzen dioguna.

1. Getxoko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio, dagozkion udal arloen elkarlanaren bitartez, Erosketak Batu, Zaindu eta Etxera eramateko zerbitzuaren bideragarritasuna eta eraginkortasuna aztertzen hasi dadila.

2. Azterketa hau, soilik egin daiteke merkatariekin, eta antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa edo elkarteekin. Zalantzarik gabe, Getxo Enpresa, Romo Bizirik, Algortako Dendak, Getxoko Ostalarien elkarteak eta antzeko elkarten laguntza guztiz beharrezkoa da azterketaren bideragarritasuna eta balizko proiektuaren ezarpena eta garapena bermatzeko.

3. Lehen azterketa egiteko eta

servicio o mediante un sistema de abono.

- El servicio tendría naturaleza propia, denominación e imagen.

Sin duda, para llevar a cabo un proyecto como éste será necesario actuar en colaboración con los comerciantes. Y no podemos olvidar que ya hay comerciantes que entregan sus productos a domicilio, así como algunos supermercados, y también hay establecimientos que llevan comida a casa, y empresas como Pata Palo. Podemos aprender mucho de ellos y pueden resultar de gran ayuda.

Lo recogido aquí son sólo nuestras primeras reflexiones. Es evidente que es necesario un proyecto sólido y bien elaborado. En el proceso de elaboración del proyecto surgirán nuevas ideas y otras serán rechazadas. Una vez presentadas estas reflexiones, proponemos al Pleno del Ayuntamiento que acuerde lo siguiente:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita al gobierno municipal que mediante la colaboración de las áreas municipales correspondientes comience a estudiar la viabilidad y la eficacia del servicio de recogida, consigna y reparto de compras a domicilio.

2. El estudio sólo podrá realizarse con los comerciantes y con empresas y asociaciones que llevan a cabo servicios análogos. Sin duda, la colaboración de Getxo Enpresa, Romo Bizirik, Algortako Dendak, las asociaciones de hosteleros de Getxo y asociaciones análogas resulta completamente imprescindible para garantizar la viabilidad del estudio y la posible ejecución y el desarrollo del proyecto.

3. El plazo para la realización del

merkatariekin hitzegiteko epea 2 hilabetekoa izango da, adostasuna lortu denetik kontatzen hasita, eta proiektu osoa, 2022ko abenduaren 31erako amaituta egon beharko da.

estudio preliminar y para hablar con los comerciantes será de dos meses a partir del acuerdo, y el proyecto deberá estar preparado para el día 31 de diciembre de 2022.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ibon Rodríguez
Carolina Uribe
Gonzalo Ayo
Fco. Javier Elorza
Iñigo Urkiza

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (PP)

200.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: COVID PASAPORTEA ESKURATU ETA HORREN ERABILERA EZARTZEA.

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Eusko Jaurlaritzak ezarri du abenduaren 15etik aurrera derrigorrezkoa izango dela Covid pasaporte aurkeztea Euskadi osoko ostalaritza-lokaletara, ospitaletara zein nagusien egoitzetara, kiroldegietara eta kultur ikuskizunetara sartzeko. Horrenbestez, sarbideak kontrolatzeko eta osasun-baimena eskatzeko neurriak hartu beharko dira espazio guzti horietan, eta kasu batzuetan zaila da neurri horiek hartzea.

Horrez gain, are zailagoa da eten digitala jasaten duten pertsonentzat; izan ere, hura sarean deskargatzeko baliabiderik edo gaitasunik ez dutenez, Izenpe zerbitzuko bulegoetara soilik joan daitezke, Bilbon, alde zurreko hitzorduekin.

200.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/ EL ACCESO Y LA IMPLEMENTACIÓN DEL PASAPORTE COVID

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

A partir del pasado 15 de diciembre el Gobierno Vasco estableció la obligatoriedad de presentar Pasaporte Covid para acceder a locales de hostelería, hospitales y residencias de ancianos, polideportivos y espectáculos culturales de todo Euskadi. Esto implica que en todos estos espacios se deben adoptar medidas para el control de accesos y para la petición del pase sanitario que en algunos casos se hacen difíciles de abordar.

Además, para las aquellas personas que sufren la brecha digital supone una complicación añadida puesto que, al no contar con recursos o capacidad para descargarlo via online, solo pueden acudir a las oficinas de Izenpe de manera presencial, en Bilbao, con cita previa.

Bizkaiko ostalaritza-elkarteek adierazi dute "zailtasun handiak" dituztela Covid pasaportearen erabilera ostalaritza-sektore osoan ezartzeko, eta neurri horrek ostalariak eta bezeroak aurrez aurre jarriko ote dituen eta, ondorioz, berriz ere kalte ekonomikoa eragingo ote dien beldur dira. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzari eta gainerako erakundeei eskatzen diete sektorea kontuan izan dezaten haiei zuzenean eragiten dieten neurriak eta horiek ezartzeko modua jorratzeko ulean.

Hizpide dugun neurriak ez du berari egokitzeko aukera handirik eman eta, kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak momentuz uko egin diola sarbideak kontrolatu behar dituzten pertsonen lana errazteko app bat eskaintzeari, udal honek neurriak har ditzake bai ostalaritza, bai eten digitala dela-eta osasun-baimena eskuratzeko arazoak dituztenak laguntzeko; horrela, dekretua betetzea erraztuko lieke eta ez lukete babes-gabeziarik sentituko erakunde publikoen aldetik COVID-19 gaitzaren bilakaerari aurre egiteko inolako laguntzarik edo babesik jaso ez izanagatik.

Hori guztia dela eta, Elkarrekin Podemos udal-taldeak honako erabaki-proposamen hau egiten dio Getxoko Udalbatzari:

ERABAKI-PROPOSAMENA

1. Getxoko Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Enpresen Kontsulta Foroa deitzeko, ostalaritzak Covid pasaportearen gaineko kontrola egiteko har ditzakeen neurriak ebaluatze aldera eta kontrol horrek beren negozioei eragiten dizkien ondorioei aurre egin diezaieten.
2. Getxoko Udalbatzak gobernu-

Las asociaciones de Hostelería de Bizkaia ya han manifestado que existen "importantes dificultades" para la implantación del Pasaporte Covid en todo el sector de la hostelería y temen que la medida pueda llegar a confrontar a hosteleros y clientela, que les puede suponer nuevamente un quebranto económico, y piden que el Gobierno Vasco y demás instituciones cuenten con el sector para tratar las medidas que les afectan directamente y cómo implementarlas.

Ante el poco margen de maniobra que ha dado la medida para adaptarse a ella y teniendo en cuenta que el Gobierno Vasco se ha negado de momento a ofrecer una app para facilitar el trabajo de las personas que tienen que controlar los accesos, desde este Ayuntamiento es posible adoptar medidas para apoyar a la hostelería y a las personas con brecha digital que tienen problemas para acceder al pase sanitario a para facilitarle el cumplimiento del Decreto y que no sientan indefensión al no recibir ningún tipo de ayuda o apoyo por parte de las instituciones públicas para hacer frente a la evolución de la Covid-19.

Por todo ello, desde Elkarrekin Podemos elevamos al pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

PROYECTO DE ACUERDO

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Equipo de Gobierno a convocar al Foro Consultivo de Empresas con el objetivo de evaluar diferentes medidas posibles para facilitar a la hostelería el control del Pasaporte Covid y que puedan afrontar las consecuencias que se deriven de esto para sus negocios.
2. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo

taldeari eskatzen dio behin-behineko laguntza-zerbitzua ezartzeko herritarren arretarako bulegoetan edo KZGunean, herritarrei Covid pasaportea formatu digitalean zein inprimatutako formatuan eskuratzen laguntzeko eta, hala, eten digitalak nahiz izapide horren zentralizazioak eragindako zailtasunak arintzeko.

insta al Equipo de Gobierno a implementar un servicio de apoyo provisional, situado en las OACs o en el KZGunea, para el asesoramiento y/o facilitación a la ciudadanía de la obtención digital o impresa del Pasaporte Covid y contrarrestar las dificultades provocadas por la brecha digital y por la centralización de este trámite.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Carolina Uribe
Gonzalo Ayo
Eduardo Andrade
Arantza Rica

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 7 (PP, Elkarrekin Podemos)

EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 4 (EH Bildu)

BOTOAREN AZALPENA/EXPLICACIÓN DE VOTO

Mikel Bildosola

GALDE-ESKEAK

Carolina Uribek dokumentaziorik ez izatearen akusazioari buruz argitzeko beharra azaldu du.

Alkateak adierazi du osoko bilkuraren amaieran argituko dela gaia.

Eduardo Andradek Eguberri zoriontsuak eta 2022. urte oparoak opa dizkie udalbatza osoari, enplegatuei eta auzotarrei.

Eduardo Andrade bilkura aretorik atera da.

11:35ean, alkateak osoko bilkura eten du, bilkura-aretoa aireztatu ahal izateko.

RUEGOS Y PREGUNTAS

Carolina Uribe plantea la necesidad de aclarar acerca de una acusación que se les ha realizado de faltar documentación.

La Alcaldesa indica que a la finalización del pleno se aclarará la cuestión.

Eduardo Andrade desea a toda la corporación, empleados y vecindad feliz Navidad y próspero año 2022.

Eduardo Andrade abandona el salón de sesiones.

Siendo las 11:35 horas la Alcaldesa suspende el pleno para que se pueda airear el salón de sesiones.

11:50ean ekin zaio berriro bilkurari.

HERRITARREN GALDERAK

Jesus Urrutia, Andra Mari Gure Lurra Auzo Elkartekoa, HAPOnen berrikuspen prozesuari eta bertatik lortu duten dokumentazioari buruz.

Alkateak HAPOnen berrikuspenaren egungo egoera azalduz erantzun du.

Alkateak Gabonak zoriondu ditu, 2022. urte zoriontsua opa baitie Getxoko herritar guztiei.

Eta beste aztergairik ez zegoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman zuen egun horretako 12:05ean.

Saio honen laburpena transkribatu da, eta bideo-akta sistema baten bidez audobisual euskarrian egindako grabazioaren osotasuna bermatzen duen ondorengo azterna elektroknoia

SHA512 -
13b5f4cade943356e40f3c2536f25b98e2b519b8d0480027d63227b95a870ab7c6db8d9eebdaec184f981aae6fae5e72473e90a7d51ff85a0271dfd13bb62244

, nik Idazkari Nagusiak eta Alkateak nirekin sinatuz, horren guztiaren fede ematen dut.

Ikus-entzunezko artxiboa Getxoko Udalaren bideotekara joz kontsulta daiteke, esteka honetan:

<http://getxo.seneca.tv/watch?id=MmE3MDU5NTQtOWMwYi00YzZhLWE0ODAtY2ZkYzZmMjkzZGRm>

Siendo las 11:50 horas se reanuda la sesión.

PREGUNTAS DE LA CIUDADANÍA

Jesús Urrutia de la Asociación de Vecinos Andra Mari Gure Lurra sobre el proceso de revisión del PGOU y la documentación que de la misma han obtenido.

La Alcaldesa responde explicando la situación actual de la revisión del PGOU.

La Alcaldesa felicita la Navidad deseando a toda la ciudadanía de Getxo un feliz año 2022.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Alcaldesa levantó la sesión siendo las 12 horas y 05 minutos de este día.

De esta sesión, cuyo extracto se ha transcrito, y de la grabación en soporte audiovisual realizada mediante un sistema de video-akta, con la siguiente huella electrónica que garantiza la integridad de la grabación:

SHA512 -
13b5f4cade943356e40f3c2536f25b98e2b519b8d0480027d63227b95a870ab7c6db8d9eebdaec184f981aae6fae5e72473e90a7d51ff85a0271dfd13bb62244

, como Secretario General y firmando la Alcaldesa en unión mía, doy fe.

El archivo audiovisual puede consultarse accediendo a la videoteca del ayuntamiento de Getxo en el siguiente enlace:

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenpefik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdeik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitaleran, ezkerrealdean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz.

GET/LCP/2022/1320 nYEeZCnUPC